

IRITZIA

Mari Angeles  
Expósito

ERREPORTAIA

Sexualitatea

UDALETXETIK

Udal Gazte  
Batzordea

BERBETAN

Xabier Larrañaga,  
irakasle eta bideo  
egilea

KULTURA

*Pasarela antzezlana*  
martxoaren 1ean

KIROLA

Bi elgoibartar  
Giuzkoako txapeldun  
eskolarteko krosean

GAZTAROA

Gazte txartela

# BARREN

1997ko otsailaren 28a  
V. urtea - 185. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## Sexualitatearen haritik tiraka

“Sexualitatea pertsonarekin hiltzen da, ez adinarekin”

# ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



%10eko  
deskontua



# CAMBRIDGE

Examinations, Certificates & Diplomas

ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



**UNIVERSITY OF CAMBRIDGE  
LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE**

## Informazioa eta matrikulak

ELGOIBAR:	Kensington School of English .....	74 02 36
	Key Academia de Ingles .....	74 30 44
DURANGO:	Compubit English Institute .....	94-620 20 20
ARRASATE:	Parlance .....	77 06 83
	Cim-Ahizke .....	79 01 32
BERGARA:	Espolon School of English .....	76 03 53
EIBAR:	Anglo-American .....	10 64 57
	Interidiomas .....	12 10 03
	Ukitze .....	70 25 59
	Link Idiomias .....	10 39 59
ONATE:	A & M School of English .....	71 61 37
	Cim-Ahizke .....	71 60 00
ONDARROA:	Howdy Academy .....	94-613 43 26

**MATRIKULAK:  
martxoaren 3tik 13ra**

## Azterketak eta datak

K.E.T. (Key English Test) .....	Ekainak 7
P.E.T. (Preliminary English Test) .....	Ekainak 7
F.C.E. (First Certificate English) .....	Ekainak 14
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....	Ekainak 12
C.P.E. (Cambridge Proficiency English) .....	Ekainak 11

**TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)**



MARI ANGELES  
EXPÓSITO

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak berea aukeratzeko du.

## Euskararen aldapa

**E**uskalduntze prozesuan dagoenaren euskara ikasteko motibazioa afektiboa edo ludikoa bada, eman beharreko pausoak zailak izaten segitukobadira ere, zertxobait arinduko zaizkio. Bere nahiaren kontra dabilenari berriz, berez zaila dena zailagoa egingo zaio, eta honen ondorioz desmotibazioa izango da nagusi. Honek ez du sekula santan ikasiko; beraz, idazki honetan alde batera lagako dugu.

Goazen orduan aztertzeraz gustura ikasten dabilen horren egoera zein izango den Euskaraz BIZI nahi duenean.

Euskaltegietan urte batzuk eman ondoren ikasitakoa praktikan jaritzeko ordua helduko zaio. Kalera atera eta lehendabiziko urratsa, lotsa, ezintasuna, bere buruarengan konfiantza eza eta abar luze bat gainditzea da.

Euskaldunak bilatzea da bigarren pausoa, eta aurrekoa gaitza bada ondorengoa ez da xamurrago izango, gainera konturatuko da (aldeztatik aurrerik badaki ere) zein erraza den Euskara Ama-hizkuntza duteak gaztelaniaz mintzatzen aurki-tzea. Jatorriz Euskalduna denak ez du apenas baloratzen duen altxorra. (SALBUESPENAK SALBU) eta nahia-goz izaten du arrotza den hizkuntzan aritzea eta honek dakarkion kulturaren murgiltzea. HIZKUN-TZA BAITA KULTURA ETA HERRIAREN MUINA.

Horrela, inguru ezegoki horretan hasi behar du hizkuntzaren aldapa gogorra igotzen

(gehienetan bakar-bakarrik) aldatsaren ton-torreraino noiz helduko den jakin gabe, ezta inoiz ailegatuko den ere. Noizbehinka, maldan gora horretan euskara betitikoa duen norbaitek (baina pausorik ematen ez duena) topo egingo du, eta hau, maldan gora doan noiz egingo duen estropozuren bat zain egongo da, adi-adi. Orduan, jausi ez dadin lagundu beharrean, kontuz ibili eta hobeto pentsatu behar dela maldan gora hasi aurretik esango dio.

Beste faktore kaltegarri askoren artean, euskalduntze prozesuan garrantzi handia duena jatorriz Euskaldunaren laguntza eza da.

Konturatuko zarete-nez honelako inguru batean hizkuntzaren tontorreraino heltzea benetan zaila da. Baina esfortzua ikaragarria izan arren,

saiakerak merezi du, eta tontorrera inoiz ailegatzetik ez badago ere, beti egongo da esfortzuaz egindakoaren saria, eta aldapan gora emandako urrats bakoitza lorpen bat da horrek dakarren satisfazioarekin. Beraz, ez dakienak ikasi, dakienak alfabetatu, aberastu eta laguntzeko prestatu, maitatu, gorde eta zabaldu dohainik, batere kostatu gabe jaso duen altxorra. Gogoratu Oskorrik abesti batean gomendatzen duena.

*Zer Euskalerrri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena,*

*ez al dakizu Euskara dela Euskaldun egiten gaituena ?*

“Jatorriz euskalduna denak ez du apenas duen altxorra baloratzen“

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala.

### ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso.

### ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte.

**KAZETARIAK** Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.

### PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

### MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo.

### ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez.

### KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Gemma Agirregomezkorta,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Pello Rubio

Unai Villena eta Julen Zabaleta.

### BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga.

### INPRIMATEGIA

Gertu koop. E.

### TIRADA

4.000 ale.

### LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

### ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



luzka fundazioa  
fundación luzka

**DANOBAT**  
MAQUINAS HERRAMIENTA

## Bakearen prezioa

Isaak Loiolak bakea lortzeko bide bila egiten duen kontsiderazio batek kezkatzen nau. Esaten du EAJ-PNVk “fede gutxiarekin ikusten duela ETA eta Estatuak negoziazio bilateral baten bidez gatazka konponduko dutenik...”. Nire iritziz, ETak ez du gure herriari dagozkion gaiak Estatuako Gobernuekin negoziatzeko legitimitaterik. ETak armak uztea eta Gobernuak presoak noiz eta nola kaleratzea bakarrik negoziatu dezakete, baina ETak ez du hori nahi. Beraz, ez da fede arazo bat.

Kontrakoa onartzeak herri honetako pertsona bakoitzak duen askatasun eskubidearen printzipioa harapatzea suposatzen du. Euskal Herriak dituen arazoak bideratze prozesuan, gure etorkizuna jorratze prozesuan, parte aktiboa hartzeko eskubidea daukat, nahiz eta okerreko bidea aukeratu.

Izan ere, horixe da printzipiorik ederrenetakoa: okerreko bidea izan arren, AUKERATZEKO ESKUBIDEA EDUKITZEA, eta indarkeriak inposatu nahi dizkigun prozesuen aurrean nire eskubideak defendatu nahi ditut.

Aurrerago, Autodeterminazioari buruz egiten duen planteiamendurekin bat nator, niretzat ere Autodeterminazioa EUSKAL HERRIKO GEHIENGOAREN BORONDATEARI LOTUTAKO PROZESU DINAMIKOA DA, BUKAERARIK EZ DUEN BIDEA.

**Juan Jose Bastarrrika Garate**

## Háblame en cristiano

Lehenengo amorrotuta eta gero triste laga ninduen gertakizun bat azaldu nahi nuke. Ostira-lean Kutxako lehiatila libratzeko zain nengoenean gertatu zen. Hogei-ta bat urte inguruko neska bat sartu zen eta ezkerreko lehiatilaren ondoren jarri. Libratu zenean bera inguratzen hasi zen eta nik, “txist... txist...” egin nion. Orduan buelta eman eta begiratu zidanean, lehenengo nire aurrean zegoenari, gero niri, eta, ondoren, berari tokatzen zitzaiola esan nion. Gaizki jausi zitzaionaren aurpegiarekin hau esan zidan: “si me hablas en cristiano igual te entiendo”. Niri bapatean, “por lo menos en cristiano no, será en otro idioma ya que ese no conozco” atera zitzaidan.

Egia esan ez nuen uste niri inoiz gertatuko zitzaidanik eta are gutxiago Elgoibarren. Semeari kontatu nioanean Gasteizen Unibertsitatean askotan gertatzen zitzaizela esan zidan, eguneroko leloa dela.

Elkar ulertu ezin honek jartzen nau triste.

**A. M. G.**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

## GALDERAK

### ◆ Zergatik ez da egoten irekita igandetan Institutuko futbol kanpoa?

Herri Institutuko Anjel Ugarteburu zuzendariak honako erantzun hau eman digu:

"Futbol kanpoa larunbatean irekita egoten da eta batzuetan jendea joaten da baina beste batzuetan ez.

Gainera beste ikastetxeetan ere ez dugu ikusi jende gehiegirik ibiltzen denik. Beste arazo bat da, jolaslekua irekita egonez gero, zaindari edo arduradunen bat egon beharko litzatekeela. Hala ere, ez genuke igandetan irekitzeko arazorik izango, beti ere, arduradun bat izendatuko balitz.

## KEXAK

◆ Emakume batek deitu digu Urasandiko Parkean **kolunpioak izorratuak** egoteaz gain, bertako felpudo edo belar artifiziala ere erabat hondatuta dagoela eta jendea estropozo egin eta erori egiten dela esanaz. Bere kexa azaldu nahi du ea norbaitek jaso eta beharrezkoa egiten duen hura konpontzeko.

◆ Santa Klaran bizi den auzokide batek honako kexa hau azaltzeko eska-

tu digu: "**Santa Klarako bidean** lurra konpontzen ari dira eta obrak sortzen duen **hautsa benetan desatsegina** da. Ez al da posible egunean behin-edo, bidea bustitzea hauts gutxiago altxatze aldera?"

◆ Pare bat gaztetxo etorri dira **Plaza Txikian autoak bankuei pegatuta** aparkatzen dituztela eta jendea ezin dela bertan eseri. Honez gain, banku berriak jartzeagatik Udal txalotu nahi dute.

## TXALOAK

◆ **San Pedro bailarako gazteek Jasone Osoro** kazetaria txalotu nahi dute. Baserrien liburuaren aurkezpen egunean publikokoi zoriondu ezin izan zuten, BARRENen bidez egiea pentsatu dute.

Elgoibarko baserri berruzko gida-liburua benetan lan bikaina irudituaie, eta lanean jardun duen denboran Jasonen erakutsi duen jarrera ona eskertu eta txalotu nahi dute.

## B A I , E S A N ?



Arnaldo Otegi  
HBko legebiltzarkidea

Aste honetako deia **Arnaldo Otegi** HB-ko LEGEBILTZARKIDEAri luzatu diogu martxoaren 7rako HBk konbokatutako duen greba orokorrari buruz berba egiteko.

- **Zein dira greba orokorra konbokatzearen arrazoiak?** - Espezio egoera batean bizi garela garbi dago, atxilotuak, kartzeleratuak... Euskal Herria espezio egoeran dago, ezin dugulako demokratikoki erabaki nolako gizartea nahi dugun, beste herriekin zein motako harremanak nahi ditugun... Noiz arte tratatu behar gaituzte adin gutxiko gizaki bezala, noiz arte egon behar dira erabaki guneak Euskal Herriatik kanpo, noiz arte erabakiko dute Madrilan edo Parisen gure seme-alabek jasoko duten hezkuntza...?

Azal dezake norbaitek zein onura dakartzkion Euskal Herriari, bere ekonomian, bere luraren defentsan, espainiar edo frantziar agintepean egoteak? Ardura politikoak exigitzen digu belaunaldi berriei askatasunaren leihoa irekitzea.

- **Jendeak erantzungo al dio zuen deialdiari?** - Dударik gabe, irakurketa ezin da egin kuantitatiboki, kualitatiboki baizik. Lantegietan esaterako, langilegoaren %35a lan ebentuetan dagoela kontuan hartu behar da, horrek suposatzen duenarekin. Edo jakin behar da funtzionarioei idatzi bat igorri dietela 4 hilebeterako espedientatuak izango direla esanez... Demokrazia falta nabaria da. Hala ere, sektore independentista eta aurrerakoiek, demokrazia eta bakearen aldekoak, erantzun zabala emanen diogula ziur naiz.

- **Nola bizi izan dituzu azken gertakariak?** - Kezka osoz, PPK zein EAJK adierazten duten arduragabekaria politikoa agerian geratu delako. Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazka Demokraziarekin gaintzen baita, ez eraso basati eta errepresiboekin.

Azken aipamen bat, nora eraman nahi dute Ertzantza EAJK eta Atutxa jaunak? Irteera gabeko bidean sartu direla garbi dago, azken finean EAJK ez ditu herri honetarako azken helburuak definiturik. Bilbon gertatutakoak adierazten du garbi, EAJren bame liskarretan bakoitzak bere mugimenduak egiten dituela. Berriz errepikatu nahi dugu eskua irekia diegula Euskal Herriaren alde dauden sektore guztiei. Esperantzaren eta askatasunaren mezulari gara. Ez gaude lanean mendekuaren bila, Euskal Herria maite dugulako gaude borrokan.

HISPANIA  ZURICH

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

# Sexualitatean norberak izan behar du protagonista

*Azken hiru asteotan, sexualitateari buruzko hitzaldiak izan dira Kultur Etxean Elgoibarko Izarrak antolatuta. Amaia Vazquez sexologoak bikotean bizitzeari, sexu harremanei eta bizitzan agertzen diren zenbait arazo eta krisialdiri buruz hitzegin zuen. Bataz beste 30 pertsona inguratu zen hitzaldi gelara, eta bertan entzundakoak kontuan izanik, oraindik ere gai honek interes handia sortzen duela ikus daiteke. Amaiarekin izan gara eta berak hainbat argibide eman dizkigu sexualitatearen inguruan.*

**Haurtzaroan.** Amaia Vazquezek esan digunez, haur batek jaiotzen denetik du sexualitateaz gozatzeko gaitasuna. Bere hitzetan, "haur batek amaren bularretik edaten duen momentuan komunikazio bat dago eta momentu horietan duen esperien-tziak gerora, heldua denean sexualitate biziko duen eran eragiten du. Frustrazioa bizi duen haurrak gerora bere sexualitatean igerriko du". Haur batek txikia denetik bilatzen du erotismoa, plazerra, "eta oraindik ere guraso eta heldu askok haurrei zikinkeriarik ez egiteko esaten diete. Ez gara konturatzen haurrengan ez dagoela inolako perbertsiorik, haurrak inozentzia osoz bilatzen dute pertsonengan gauza naturala dena, erotismoa, plazerra, sexualitatea. Helduok ematen diogu morbositate punta". Amaiak azaldu bezala, "txikitan mas-

turbatu egiten gara, maite-mindu egiten gara, desioa sentitzen dugu, plazerra... eta horrela osa-tzen dugu gure identitate sexuala".

**Neska edo mutila.** Ama-iak esan digunez, "sexualitatean generorik ez dago. Guk neska eta mutilen artean ez dugu inolako desberdintasunik ikusten gorputza deskubritzeko prozesuan. Gero egia da mutilei eta neskei balore desberdinak transmiti-tzen zaizkiela. Neskei esaten zaie hankak ezin direla ireki, kuleroak ez direla erakutsi behar. Mutilei ez zaie horrelakorik esaten eta hor hasten gara markatzen nesken sexualitatearen baloreak. Hori bai, neskek askoz esfortzu handiagoa egiten dute euren desioa asetzeko, gehiago borrokatu behar dute gurasoengandik jasotako kontu eta baloreak gainditzeko".

**Birjinitatea.** Gaur egun ez du garai batean zuen garran-tzirik. "Neskei ezkondu arte birjinak izaten jarraitu nahi duten galdetzen diedan erantzuna ezezkoa da. Azken urteotan asko gainditu den gaia da eta gaur egun ez da balore bat kontsideratzen.". Halere, badago beste arazo bat, "oraindik ere topikoa izaten jarraitzen du mutilek nahiago dutela harreman gutxi izan dituzten neskek". Eta ez hori bakarrik, "beste tirania batean erori gara. Badirudi 25 urte dituen neska eta mutil batek birjina izaten jarraitzen badu, arazo-

ren bat duelako dela. Gaur egun 25 urteko mutil birjin batek konplejoa eduki dezake".

**Desio sexuala.** Esan izan da gizonezkoek biologikoki desio sexual gehiago dutela emakumezkoek baino, beti prest daudela. Amaiak esan digunez, "faktore batzuk daude. Batetik emakumeok historikoki erreprimitu egin dugu gure desio sexuala, gaur egun ere bai. Desioa sentitzen bagenuen ez genuen adierazten, historikoki gutxiago disfrutatu dugu gure sexualitatean ezjakintasunarengatik, gure gorputza ez ezagutzeagatik, ze praktika sexual gustatzen zaizkigun adierazteko beldur-rengatik, sarri lagunekin desmitifikatu egin dugu sarketa baina gero gizonekin ez gara ausartu beste zerbait proposatzera... Azken finean, sexualitatearekin ez baduzu disfrutatzen, gero ez zaizu interesatuko, beste gauzekin bezala. Babarrunak ez bazaizkizu gustatzen, berriz ez jaten saiatuko zara, ez?".

**Protagonista izan.** Sexualitate

intuizio bat da, sena, "eta hala bizi behar dugu. Norberak bere sexualitatea bizi behar du, bera izan behar da protagonista. Askotan gertatzen da ez garela gure sexualitatearen protagonistak. Ez bada hitzegiten, korrika eta presakako sexualitatea bada, azkenean sexualitatea gozaten ez den praktika batean bihurtzen da. Beharrezkoa dira batetik protagonista izatea eta bestetik bikotearen artean komunikazioa egotea, bikote establea edo esporadikoa izan".

**Masturbazioa.** Masturbazioaren inguruan asko esan izan da, esate baterako bikote barruan gaizki dagoela. Honen aurrean Amaiak esan digunez, "badirudi bi-



kote estable batean neska edo mutila masturbatzea ez dela ona, horrek esan nahi duelako bien arteko harreman sexualak ez dituela asetzen. Baina hori esatea ez da bat ere logikoa. Batetik, lehen esan bezala, norberak izan behar duelako bere sexualitatearen protagonista. Gorputza ezagutu egin behar da gozatzeko eta erarik onenatarikoa masturbazioa da. Horrez gain, bikote batek bere jolasen artean sar dezake masturbazioa”.

**Orgasmoaren tirania.** Praktika sexuala guztien helburua orgasmoa izatea, gaur egun tirania bihurtu omen da askorentzat. “Badirudi, orgasmoa dela sexuaren azken helburua eta hori lortzen ez bada zerbait ez duela funtzionatzen, zerbait gaizki egiten dela usate dugu. Askotan orgasmorik ez izateak arrazoi oso sinpleak ditu, zenbait posturatan adiestratu behar izaten da bikotea eta abar. Egia da, oraindik ere gizonezko asko ‘a lo suyo’ doazela, eurena

lortzen dutenean, amaitu da jolasa. Helduengan gertatzen da batez ere hori. Halere, orgasmoa lortu gabe ere disfruta-tzen dela ikasi behar dugu. Praktika sexualak ez duela zertan derrigorrez orgasmora eraman behar; hala bada oso ondo baina bestela, ikas dezagun disfrutatzen jolas sexual guztiekin, bere osotasunean. Orgasmoak asko murrizten du sexualitatea eta askotan bersarkada eta musu batek askoz gehiago bete gaitzake orgasmoak baino. Sexualitatea ez da orgasmoa bakarrik, samurtasuna, komunikazioa, berotasuna, konplizitatea... horiek guztiek ere osatzen dute sexualitatea”.

**Jaio eta hil.** Pertsona batek jaiotzen denetik dauka sexualitaterako gaitasuna eta gaitasun hori hiltzen den arte mantentzen da, “argi dago aldatu egiten dela, adinari egokitzen zaio. Oso desberdina da 20 urte edo 70 urteko pertsona baten sexualitatea baina bietan disfruta daiteke, plazerra sentitu. Se-

# AMAIA VAZQUEZ

## ”Errepresio sexuala era finagoan egiten da gaur egun”

- Zer da sexologia?

-Oinarria psikologia da eta gero sexologia espezialitate bezala hartzen da. Psikologia egin gabe sexologiak ez dauka zentzurik. Sexualitatean sortzen diren krisiek zerikusia handia dute gure izakera eta sikearekin. Beharbada informazio eta hezkuntza sexualerako ez da beharrezkoa baina terapeutikoki ezinbestekoa da.

- **Badirudi gaur egun informazio asko dagoela sexualitatearen inguruan. Halere, tabu izaten jarraitzen al du?**

- Askok aurreratu dugu baina hala eta guztiz sexualitateak arlo intimo eta pertsonala suposatzen duen heinean ikusten dugu komunikazio problemak daudela. Tabuak? Tabu asko daude. Beharbada tabu zaharrak gainditu egin dira baina horien tokian berriak sortu dira.

- **Esaterako?**

- HIESAren inguruan, abortoa, zenbait praktika sexual... Guk esaten dugu gaurko errepresio sexuala okerragoa dela lehengoa baino, sotilagoa baita. Lehengo errepresioa oso nabarmena zen, hau ondo zegoen, hori gaizki, hau pekatua zen eta hura ez. Gaur egun askoz tolerantagoak gara baina errepresioa ezartzen da gazteen eta hauren sexualitatearen inguruan...Sotilagoak dira eta horien kontrako borroka zailagoa da.

- **Sexua eta sexualitatea desberdinak dira?**

- Sexualitate hitza ai-




patzen dugunean praktika sexualetara jotzen dugu, sexu harremanetara eta ikuspegi horretatik asko murrizten dugu benetan sexualitatea dena.

- **Eta zer da?**

- Gu definitzen gaituen ezaugarri inportante bat, oso garrantzitsua gure identitatean. Txikitatikan daukagu sexualitatearen gaitasuna, alde batetik, plazerraren gaitasunean isladatzen dena eta bestetik, gure identitate sexuala markatzen duena. Horregatik, sexualitatearen bi- zipena praktika sexuala baino areagoa doa.

- **Bikote baten harremanean ba al da sekreturik?**

- Bikote bakoitzak bi- zipen batzuk ditu eta ez dago formula magikorik. Argi dagoena da, sexua bezain garrantzitsua, komunikazioa, errespetua eta tolerantzia direla, bai eta autonomia ere. Bikote bat bi pertsonak osatzen dute eta bakoitzak bere autonomia mantendu behar du, bakoitzak aportatzen duenarekin aberasten da bikotea.



# Zer irudituko litzaizuke Lerunen supermerkatu bat irekitzea?



**JUSTA MUÑOZ**  
72 urte, etxeandrea

Egia esan, ez dakit. Erosketak herrian egiten ditut eta batzuetan etxe alboko dendan. Behin edo behin kotxearekin supermerkatu batera joan izan naiz.




**ANTONIA IRIONDO**  
65 urte, etxeandrea

Nik Elgoibarren erosten segitxuko dot. Elgoibarren elgoibarkuek erosi bihar dabe ze bestela dana tailerrak ipini biharko dabe dendak funtzionatzen ez badabe.



**M. DOLORES IRIONDO**  
62 urte, etxeandrea

Ona izango da baina dendarri txikixantzat kaltia. Ni gutxitan jun izan naiz supermerkatu haindixetara, kotxia bihar da-eta. Normalian etxe ondoko dendetan ibiltzen naiz.



**ANTONIO OTERO**  
61 urte, barnizatzailea

Kontsumitzailearentzat ona da baina dendarientzat txarra. Supermerkatuek produktu merkeagoak dituzte baina kalitatea hobea izaten da denda txikietan.



**PILAR ARRIETA**  
58 urte, etxeandrea

Guretzako zenbat eta gehixo hobeto, baina dendariek ez dabe berdina esango; gainera, normala da. Sekula Loiolara jun izan naizenian sartu gera supermerkau baten.



**FLORI ORTIZ DE VILLALBA**  
54 urte, etxeandrea

Ez zait bat ere ondo iruditzen. Nik beti Elgoibarren egiten ditut erosketak eta uste dut horrela izan behar dela, herrian utzi behar ditugu diruak.

**HERRI-  
GAIN**  
**ERRETEGIA**  
San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**Truk**  
ZABALIK goizeko  
9etatik aurrera,  
astelehenetik  
larunbatera

San Frantzisko, 27 - Tel. 74 26 21



## Supermerkatu bat Lerunen

Azken urteotan nagusi-tzen ari den joera merkatal guneak sortzea da. Hortxe ditugu Azkoitiko eta Eibarko kasuak. Azken egunotan egunkarrietan irakurri ahal izan dugunez, elikagaien salmentan aritzen den enpresa handi batek Lerungo industrialdean tamaina ertaineko supermerkatu bat irekitzeko asmoa azaldu du Udaletxera bidalitako merkatu azterketa baten arabera. Irungo zonaldean kokatzen den Unialco enpresa da asmo horrekin dabilena. Kate honen barruan IFA izeneko supermerkatuak daude. Enpresa honetako Victor Espinosa salmenta buruak adierazitakoaren arabera, "Unialco supermerkatu bat irekitzeko lekuak aztertzen ari da inguru horretan. Lerungo industrialdea horietariko bat da eta momentuz enpresa batek merkatu azterketa bat egin digu eta leku aproposa izan daitekeela ikusi dugu". Txostenaren arabera, horrelako supermerkatu baten irekierak onurak ekarriko lizkioke Elgoibarri, "Azkoitira eta Eibarrera erosketak egitera jotzen direnak ez liratekeelako kanpora joango aurretantzean, bertan geratuko baizik". Unialco elikagaien arloan aritzen da, "hortaz, zerbait irekitzekotan supermerkatu bat edo gehienez "maxi" bat izango litzateke, hau da, elikagaiak, drogeria, fruitategia, harakindegia eta arrandegia dituen denda. Unialco-k ez omen du lan egiten elektratresna, jantziak eta bestelako produktuekin. Momentuz asmo hutsa dela esan daiteke "eta zerbait gauza-tzekotan, gainera, ez litzateke aurtan izango seguruenez".

Dena den, horrelako lokal batek Elgoibarko komertzio txikiarentzat izan dezakeen eragina zein den jakin nahi izan dugu. Txankakuako zuzendaritzako hitzetan, "Udalak proposamen honen berri eman zigun azter genezan. Udalak honen berri ematea ondo deritzogu". Txostenak ez du zer-nolako denda izango litzatekeen aipatzen. "Proiektua bere osotasunean aztertu beharko da lehenengo baina argi dago onurak baino kalteak ekarriko lituzkeela Elgoibarko elikagaien dendentzat". Adibide batekin argi uler daiteke Txankakuako adierazi nahi dutena: "egia da horrelako lekuek kanpoko jendea erakar dezaketela, baina 20 emakumek herriko harakinarri haragia erosteari uzten badiote, eta kanpotik 10 bezero berri etortzen bazaizkio, hala ere, denda horrek 10 bezero galtzen ditu". Honen aurrean denda txikiaren irtenbidea espezializazioa da, "bestela ixtera kondenatuak daude".

Gillermo Garate alkateak esan digunez, "lurrak Gure Etxetxo Inmobiliaren jabetzakoak dira. Behin proiektua aurkezten denean eta arauak betetzen baditu Udalaren eginkizuna litzentzia ematea da, besterik ez". Udalak, merkatu azterketa egin duen enpresa eta Txankakuaren artean bilera egitea komenigarria dela dio. Txankakuaren nahia herriko denden egoera aintzakotzat hartua izatea da. Herriko komertzioek ezin dute borrokatu horrelako denda handi batekin. Hortaz, superfizie horrek izango dituen abantailak herriko dendek ere edukitzea legezkoa dela uste dute Txankakuakoek.

## iSPI- DEGIRA



*du Ter  
Bartan*

Arotza

- **Nolakoa litzateke zure neurrira egindako bizitza?**
- Lasaia, diruarekin, zoriontasunarekin, lanarekin...
- **Zer gordeko zenuke kutxa batean?**
- Nire emaztea eta alabak.
- **Zein sentimendu erosiko zenuke posible balitz?** - Sinzeritatea.
- **Maitasuna diruz eros daiteke?**
- Gerta daiteke baina egiazko maitasuna baino interesatua litzateke.
- **Egurrez eginiko zeri emango zenioke bizitza?**
- Naturari, gaur egun bizitza eman baino kendu egiten diogu eta.
- **Ametsak zuri-beltzean ala koloretan dira?**
- Idearik ere ez.
- **Gizartean dagoen zitzarrik handiena?**
- Zenbait pertsona.
- **Ba al dakizu kozinatzen?** - Bai.
- **Joango zinateke ilargira?** - Ez.
- **Eta beste planetetan bizitza dagoela uste duzu?** - Bai, zergaitik ez?
- **Superstiziorik ba al duzu?**
- 13 zenbakiarekin piska bat.
- **Hartu izan duzu parte sekula lehiaketaren batean?**
- Bai, orain dela urte asko Zazpiki irratian.
- **Nor gonbidatuko zenuke zure etxera afaltzera?** - Lagunak.
- **Osasuna, dirua ala maitasuna?**
- Osasuna, dirua eta maitasuna.
- **Zer ez zenuke barkatuko?** - Infidelitatea.
- **Nahi duenak ahal du?** - Ez. Gauza asko nahi izaten ditugu baina guztiak ez dira posible.
- **Zenbat urte bizi nahi zenuke?**
- Nire kontura baliatzeko naizen bitartean, asko.
- **Lana obligazioz?**
- Beharrezkoa da baina gustatzen zait.
- **Loterian 600 milioi tokatuko balitzaizkizu?**
- Lanpostuak sortuko nituzke.

## ● Jubilatuen Etxeko batzar nagusia

Martxoaren 14an Jubilatu eta Pentsiodunen ohiko Batzar Nagusia izango da, arratsaldeko 6etan. Batzarrean, 1996an egindako ekintzei eta diru kontuei buruz hitzegingo da, besteak beste. Jubilatuen Etxeko lehendakariak, Iñaki Insaustik bazkideei dei egiten die bilerara joan daitezten.

## ● Terma programak

Donostian Aldundiko Gizartekintza sailak 60 urtetik gorakoentzako terma programa antolatu du Donostian. Hiru txanda daude: lehena hasita dago; bigarrena apirilaren 7an hasiko da eta irailaren 29an hirugarrena. Izena emateko Gizartekintzako 900 43 43 43 zenbakira deitu.

## ● “Euskararen Unibertsoa”ren jardunaldiak

“Euskararen Unibertsoa” ekimenak 225 matrikula jaso ditu dagoeneko Donostiako Costa Vasca hotelean martxoaren 7 eta 8an egingo diren jardunaldiatarako. Oraindik ere matrikulatzeko aukera badagoela jakinarazi nahi dute antolatzailleek. Izena eman edo argibideren bat jasotzeko 27 17 13 zenbakira dei daiteke.

## ● AFAGIren bulegoa zabaldu dute Eibarren

AFAGI, Alzheimer gaitzaren Gipuzkoako Elkartearen ordezkaritza bat Eibarren ireki dela jakinarazi nahi du Udal Ongizate Sailak. Bulegoaren ordutegia astearteetan goizeko 10etatik ordu batera bitartekoa izango da, beti ere 20 82 24 zenbakira aurrez deituta.

## Gillermo Garatek bat egin du ETArekin aurkako alkateen ekimenarekin

Gipuzkoako 48 alkatek enpresariei elkartasuna adirazi zieten

Gillermo Garate alkateak, Gipuzkoako beste 47 alkaterekin batera, Gipuzkoako Enpresarien Elkartearekin (ADEGI) elkartasuna adierazteko dokumentu batekiko atxekimendua adierazi zuen astelehen goizean ADEGIren egoitzan izandako ekitaldi batean zehar. Ekimena gipuzkoar alkate talde bategandik sortu zen, Cosme Delclaux enpresari bizkaitararen bahiketaren ostean gorpuztu zena. Dokumentuak “ETAk gure herrialdeko enpresariak xantaiatzan dituela eta langileei lapurreta egiten diela” salatzen du, eta “tortura eta bahiketaren bidez etekin ekonomiko edo politikoak lortu nahi izateak



mezprezua merezi duela” gaineratzen du. Guillermo Garate alkateak esan bezala, “enpresarien irudia berreskuratzea oinarritzkoa dela deritzot, ez baita egia enpresarien asmo bakarra dirua metatzea dela, eta gero ahal dutenek behintzat, alde egiten dutela enpresa bertan behera lagata. Elgoibar herri industrialia izanik, beharrezkoa iruditzen zait enpresarien aldeko defentsa egitea. Nik neure begiez ikusi izan dut Elgoibarko enpresariak nola sortu diren. Langile xumeak izan dira ia denak hasieratik, eta gero, abilezia gehien izan duena enpresa sortzeko gai izan da”.

## Josu Merino Cerro Torre-ko gailurrera igo da


Joan den urtarrilaren leian Logroñoko adiskide batekin abiatu zen Josu Merino 25 urteko eskalatazaille elgoibartarra Patagonia aldera. Eskalatazaille gazte hauen asmoa Torre Cerrora igotzea zen, mendeleko hegaletik bide berri bat eginez. Granitozko hormak bai eta izotzezkoak ere igo behar izan dituzte. Torre Cerroren gailurrera igotzeaz gain, Stangart Torreko bide bat eskalatzeko ere lortu omen dute, besteak beste. Astelehenean etxera deitu zuen eta bere amak esan digunez, “oso pozik zegoen gailurra lor-

tu izanagatik”. Gutxi jaten omen dute, “gosea pasatzen dutela esan zidan. Hala ere, bertako biztanleak oso jatorrak omen dira eta oso gustura dagoela esan zidan”. Josu Merino martxoaren 10 edo 11n itzuliko da Elgoibarrera. Txoko honetatik, zorianak!



## Baserrien gida-liburua 2.000 pta.n salgai

DEBEMENek argitaratu berri duen Elgoibarko baserrien gida-liburua salgai dago herriko liburutundetan 2.000 pta.ren truke. San Lorenzo, San Pedro, Urruzuno, San Migel, Altzola, San Roke eta Arriaga auzoetako 207 baserriren berri ematen da bertan, baserri bakoitzean zein bizi den, zein hedadura duen, kaletik zein distantziatara dagoen, altuera, esplotazioa eta zenbait bitxikeria ere jasotzen direlarik. Proiektuak 3 milioiko kostua izan du eta 2.000 ale kaleratu dira. Baserri bakoitzean ale bana banatu ondoren, gainontzekoak herritarrek erostea da helburua. Joan den larunbat arratsaldean herritarren aurrean egin zen aurkezpena. Bertan Jasone Osoro liburuaren egilea, Iñaki Oñederra baserri zinegotzia, Guillermo Garate alkatea eta Iñaki Txueka alduna izan ziren.



## Jai giroan ospatu zuten Ate Irekien eguna Herri Eskolan joan den zapatuan

Eguraldi ezin hobeak lagun, jai egun polita ospatu zuten joan den larunbatean Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek Ate Irekien egunean. Timo Uzin ikastetxeko zuzendariak esandakoaren arabera, "goizean tailerrak muntatu genituen eta matrikulatze sasoiari dituzten ikasleen gurasoek 2 eta 3 urteko haurren gelak bisitatu zituzten batez ere". Bazkarian 70 bat guraso elkartu ziren eta "arratsaldean giro benetan polita sortu zen pailazoan ikusikizunarekin, gurasoek beraiek ere parte hartu zuten saioan".

### ● Arrantza federatu lizentzien tramitazioa

Martxoaren 16an arrantza denboraldia hasiko denez, federatu lizentziak tramitatzeko epea martxoaren 10ean amaituko da. Gestioa egiteko La Unión elkartetik pasatu astelehenean arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean. Hilaren 10ean zozketa egingo da arratsaldeko 8etan San Lorenzo errekarako. Era berean, gogorazi nahi da tiroko federatu lizentziak ere dagoeneko egin daitezkeela.



# BARREN *astekarian*

## PUBLIZISTA bat behar da

**ESKATZEN DA**

- I kasket a

**BALORATUKO DA**

- Marketing eta publizitate

**ESKAINTZEN DA**

- Urtebeterako

Izena emateko azken eguna: MARTXOAREN 7a

Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra K. E. Ubitarte 4,

● HBko zinegotzien oharra herriari

HBko zinegotzi elgoibartarrek Udaleko zereginak bigarren mailara pasatzeko erabakia hartu dute “martxoaren 7ko greba orokorra-ekin amaituko diren mobilizazioetan buru-belarri aritzeko”. HBko Mahai Nazionalaren atxiloketa “errepresio politika baten ondorioa da, Alternatiba Demokratikorekin bidearen publizitatea egitea-egatik, hau da, autodeterminazio eskubidea eta Lurralde Batasunaren publizitatea”. Egoera honi aurre egiteko Pello Mendizabal, Jabi Agirre eta J. Carlos Marcos zinegotziek udal eginbeharrak bigarren mailara pasatzeko erabakia hartu dute.

● Aitor Esnaola eta Jose Antonio Gómez dira brigadako langile berriak

Duela hilabete hasi ziren Udaltxean brigadarako bi lanpostu betetzeko frogak. 30 pertsona inguru aurkeztu ziren eta euskara eta diktatuko frogak 9k pasatu zituzten. Froga fisikoan 4 igeltsu mota desberdin eta landare eta hosto diferenteak ezagutu eta izendatu behar zituzten, bi margo muestra lortu behar izan zituzten nahasteak eginaz, regla batekin angelu zuzen bat markatu, plomada batekin behean markatutako puntu bat gora eraman, aitzur bat desmontatu eta, azkenik, desbrozadora bat montatu eta gero, belarra moztu. Jose Antonio Gómez Garridok 36 puntu lortu zituen eta Aitor Esnaola Iriondok 30. Horiek biak izan dira aipatu lanpostu fijoak eskuratu dituztenak eta martxo aldera hasiko dira lanean.



Jose Antonio Gómez



Aitor Esnaola

# Gazteekin lan egin asmoz sortu da Gazte Batzordea

*Gazteen gaia lantzeko urri aldera sortu zen Gazte Batzordea, gazteekin lan egiteko filosofiarekin. Ales Arrieta, Gotzon Arrieta eta Ana Santolayak prentsaurrekoan azaldu zuten, “Kultura Batzordea geldoegia zen eta azpi-batzorde bat eratzea erabaki zen”. Gazte Batzordeko kideak botazioz aukeratu ziren eta gaur egun Ales Arrieta (EA), Gotzon Arrieta eta Ana Santolaya (EAJ) eta Juan Karlos Markos-ek (HB) osatzen dute nahiz eta, “Marcos bi bileretara bakarrik azaldu den”.*

“Batzordea autonomia da eta erabakitze ahalmena dauka”, adierazi zuen Anak. Filosofiari dagokionean Alesek adierazi zuenez, “gazteekin lan egin nahi dugu, ez gazteentzat bakarrik”. Lehenengo pausoa Elgoibar-ko gazteen egoera aztertu, irtenbideak aztertu eta txosten bat idaztea izan da eta horretarako, aipaturiko politikoez gain teknikariak ere izan dira: kultura, kirola, euskara eta ongizate sailetako teknikariak.

**Lau helburu**

Aipatu txostenak lau helburu ditu: dinamizazioa eta partehartzea; subsidiaritate; flexibilitatea eta arintasuna eta jarraipena, ebaluazioa eta kontrola. Honela, gazteen partehartzea bultzatu nahi da, ekintzak antolatze beharrezkoa duten dirulaguntza lortzen lagunduz, gaur egun ematen den burokratiza-

zioa baztertu, Udala gazteei hurreratu eta azkenik, gazteen egoera orokorra jarraitu eta ebaluatu.

**Nondik hasi**

Txostenean hasiera batean Gazte Batzordeak lan egin beharko lukeen hainbat puntu zehazten dira, besteak beste, herriko lokalen berrantolaketa, Errotaxorekin elkarlana, drogomenpekotasuen prebentzioa eta abar...

Alesek azaldu zuenez, “Gazte Asanbladarekin hasi gara Gaztearean gaiak gaurkotasuna duelako. Joan den astean bilera izan genuen Gakoa, Gaztearean aldeko plataformarekin eta lokala lortzen saiatuko ginela azaldu genuen”. Gazte Batzordeak zenbait baldintza jarri zituen, “pankarta, zarata, ordutegia, ekintzak, alderdi politiko konkretuekin ez identifikatzea eta ahalik eta gazte gehien eta pluralenak parte hartzea...” Gotzonek azaldu zuenez. Momentuz bilerekin jarraituko dute GAKOA eta Gazte Batzordekoek eta bitartean txostena Elgoibarko 23 elkartetara bidali dute. Pare bat aste barru, eurekin harremanetan jarriko dira ea guztien artean Batzordearen behin betiko definizio eta funtzionamendua zehazten den. Alesek esan zuenez, “beharbada aztertu egin beharko litzateke teknikari konkretua behar den Gazte Batzordea koordinatzeke”. Printzipioz Gazte Batzordeak 1997. urterako 6,5 milioiko aurrekontua du.



Gotzon Arrieta, Ana Santolaya eta Ales Arrietak eman zuten prentsaurrekoa.

# Kili **BARREN**

Otsailaren 28a  
37. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



# H

ilabete honetako argazkia **Javi Basurtok** lagatakoa da. 1965. urtean aterata omen dago, Javik esandakoaren arabera. Dirudienez, San Juan Bosko egunean jokatu zuen futbol partidua gazte talde honek. Deba, Mu-

triku eta Mendaroko ikasleek osatutako taldeak elgoibartarrei irabazi egin omen zien. Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Goian, ezkerretik hasita: **J. M. Trincado** (zuzendaria), **Juanjo Eizagirre**, **Javier Zapirain**, **Iñaki Karrillo**, **Justo Basurto**, **Javier Basurto** eta **Jesus Mari Salegi**.

Behean, ezkerretik eskuinera: **Xabi Larrañaga**, **Juan Carlos Sukia**, **Andres Urbieto**, **Antonio Arrieta**, **Javier Beristain** eta **Modesto Oliden**.



**ITURRI**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**ITURRI**  
Taberna



Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR  
TEL: 74 28 97

# Mendarotarrak elk

*Mendaro herri txikia dela ezin du inork ukatu. Halere, txikia izateak ez du esan nahi horregatik aspergarria izan behar duenik. Izan ere, Mendaron bertan elkarte ezberdin dextente daude martxan eta hilabetero egiten dugun erreportaia horien berri emateko aprobe txatu nahi izan dugu. 10 elkarte daude guztira eta batzuen eta besteen artean, herri txiki honetako hainbat ekintza antolatzen dituzte urtero. Bakoitzari buruzko hainbat datu zehaztuko ditugu jarraian eta ondoko lerroetan aipatu ez arren, gogoan izan nahi dugu urte askotan mendarotarrontzat izugarritzko garrantzia izan duen elkarte bat, gaur egun desagertua dagoen Guruzpe, hain justu.*

## Mendaroko abesbatza

Duela 9 urte sortu zen.

- **Helburua:** kultura mailan kantatzeko grina eta jendeak entzuteko asmoarekin.
- **Ekintzak:** Gabonetan, Trinitateetan eta Santa Zezilia egunean kontzertu bana ematen dute.
- **Dirulaguntzak:** Ez dute dirulaguntzarik jasotzen.
- **Zuzendaria:** Agustin Berasaluze.

## Lagun Betikoak Jubilatuen Elkarte

1995eko maiatzaren 26an sortu zen.

- **Bazkideak:** 261
- **Helburua:** Mendaron zeharrentzako zerbait egon zedin sortu zen lehenengo bultzada Udalak eman zuelarik.
- **Ekintzak:** Astean bi aldiz gimnasia, karta jokoen lehiaketak, urtero bi irteera, 80 urtetik gorakoentzat bazkaria, Gabonetako txokolatada eta Lizarolara oinezko irteera.
- **Aurrekontua:** 632.000 pta. (Udala, Aldundia eta kuotak)
- **Lehendakaria:** Valentin Jauregi.

## Bizi-Poza txaranga

1991. urtean sortua

- **Helburua:** Musika mailan zerbait egitea eta jaiak animatzea.
- **Ekintzak:** Mendaroko jaietan, Andra Mari egunean eta Santa Zezilia egunean kaleak alaitzera ateratzen dira.
- **Aurrekontua:** Mendaroko Udalak aktuzazio bakoitzeko ordaintzen dio (1996an 380.000 pta.).
- **Zuzendaria:** Aitor Motriko.

## Killimon Futbol Taldea

1972. urtean sortu zen.

- **Helburua:** Gazteentzako zerbait lortzea eta futbol zelaia egitea. Horretarako federatu egin ziren eta futbol zelaia egiteko behar zen diruaren erdia Federazioak jarri zuen eta beste erdia jendeak lan eginez.
- **Aurrekontua:** 2.200.000 pta. (500.000 pta. Udalak)
- **Lehendakaria:** Elias Arriola.

## Arno Guraso Elkarte

1989an sortu zen.

- **Helburua:** Eskolako ekintzetan gurasoen partaidetza bultzatzea eta Ikastolatik kanpoko ekintzak bultzatzea, familia eta ikastolaren arteko harremanak bideatzea, ikasle eta gurasoei begira hobekuntza ematea hezkuntzan eta ekintzak burutzeko dirulaguntzak eskatzea.
- **Ekintzak:** umeen ikastolako kirol ekintzak, mendi irteerak, akanpadak, kirol irteerak, hitzaldiak, Errege eguneko kabalgata eta tanborrada infantila Emakume taldearekin batera.
- **Aurrekontua:** 1.442.328 pta. (Udala, Jaurilaritza, Aldundia eta kuotak)
- **Lehendakaria:** Amor Urkiza.



ERREALZALEAK taldea.

# kartzeko 10

## Peña Aran-Erreka Mendaroko Errealaren Lagunak

1995eko abenduaren 22an sortu zen.

- **Bazkideak:** 138
- **Helburua:** Errealzaleak elkartzea eta astero Erreal ikustera joateko aukera ematea lau pertsoneri.
- **Ekintzak:** Urtean behin irteera bat egiten dute Erreal ikustera joateko. Aurten Zaragozaren aurkako partidua ikustera joango dira eta bidaiari honetan Tuterara eza-gutzeko aukera izango dute. Bazkideen artean zozketa egiten da astero lau pertsona Añoretara joateko.
- **Dirulaguntza:** Bazkideen kuota eta kinielaren birtartez.
- **Lehendakaria:** Juanjo Loiola.

## Mendaroko Gazteak Dantza Taldea

- **Helburua:** Dantzan ikas-atea eta egitea.
- **Ekintzak:** Dantzari Txiki eguna ekainean, Jubilatuen egunean eta jaietan dantza egiten dute, urtean zehar lauzpabost irteera dantza egiteko, urtean behin aste-buruko irteera.
- **Aurrekontua:** 85.000 pta. Dantzari Eguna antolatzegatik eta 175.000 pta. 4 urterako (1994-98).
- **Zuzendaria:** Guraso eta irakaslez osatutako komisia.

## Emakume taldea

- Duela 19 urte sortu zen.
- **Helburua:** Emakumeei begira zenbait ekintza antolatzea.
  - **Ekintzak:** Emakumeei zuzendutako hitzaldiak eta Yoga.
  - **Aurrekontua:** 100.000 pta. (Udala)
  - **Lehendakaria:** Ez dago.

## Kilimon Ehiza eta Arrantza Elkartea

1954. urtean sortu zen.

- **Helburuak:** Hasieran elkarte gastronomiko bezala funtzionatzen zuen. Gaur egun bi eratako bazkideak daude: kirol bazkideak eta gastronomikoak.
- **Ekintzak:** Ehiza txikia txakurrekin, tiro al plato, Kilimoi errekarra amuarrainak botatzen dituzte, arrantza lehiaketa, erakusketa txakurren ehiza lehiaketa.
- **Aurrekontua:** 117.158 pta. (94.000 pta Udalak)
- **Lehendakaria:** Patxi Olazabal.


## Txirrindulari elkartea

1982-83 urtean sortua.


- **Helburua:** Mendaron txirrindularitza bultzatzea bai eta herriko txirrindulariak ere.
- **Ekintzak:** Jubenilen urteko karrera ziklista.
- **Aurrekontua:** 225.000 pta. (136.000 pta. Udalak)
- **Zuzendaria:** Jose Manuel Muñoz.

## Elkarteren batean sarturik al zaude?

**ASIER ARRIOLA**  
26 urte



“Bai, orain dela 14 urtetik Kilimoian jolasten det. Futbola gustatzen zait eta lehen ez zegoen ezer Mendaron. Orain Mendaroko gaztiak ez badira apuntatzen desagertu egingo da. Horrez gain, gurasuak ere direktiban sartzia ez litzake gaizki egongo”.



**MAITE MAIORA**  
16 urte

“Ez, baina ez litzaidake inportako elkarteren batian egotia. Adibidez mendiko elkarteren batian egotia ondo egongo litzake asko gustatzen jata eta. Baina Mendaron ez dao holako elkarterik”.



MENDAROKO ABESBATZAK urtean 3 kantaldi eskeintzen ditu.

### ❖ San Ageda eskea

Otsailaren 8an Mendaron egin zen Santa Ageda eskeak izugarriko erantzuna izan zuen guztira 380.000 pta. bildu zirelarik. Kopuru horri koplari, trikitalari eta bazkariaren ordainketak suposatu zuenak kenduta, 224.900 pta. geratu dira garbi antolatzaileentzat. Beraz, Mendaroko Gazteak dantza taldeak eskerrak eman nahi dizkie bai koruetan eskean ibili zirenei eta bai herritar guztiei emandako erantzunagatik.

### ❖ Herriko elkarteentzako dirulaguntzak

1997. urteko aurrekontuak aztertzen ari dira eta hauen barruan herriko kultur eta kirol elkarteentzako dirulaguntzak sartzen dira. Hori dela eta, dirulaguntza hori jaso ahal izateko, elkarteek urtean zehar egingo dituzten ekintzen zerrenda eta aurrekontuak aurkeztu beharko dituzte martxoaren 10a baino lehen.


### ❖ HBko Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa

Mendaroko Herri Batasunak Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa salatu nahi du. HBren esanetan, "kide horiek Euskal Herriarentzako irtenbide bakarra den bako proposamena, Alternatiba Demokratikoa, zabaldu eta ezagutarazteagatik izan dira atxilotuak". Era berean, alderdi honek, "Ezker Abertzalearen aurka zuzenduta dagoen jarrera errepresiboa" gaitzesten du eta "hori guztia salatze-ko egingo diren ekintzetan mendarotar guztiak partehartzera" gonbidatzen ditu.

## Aingeru Guardako jaiak

Bihar, martxoak 1, hasiko dira Aingeru Guardako jaiak urtero bezala. Goizeko 8etan eta 11etan Aingeru Guarda elizan meza izango da. Igandean berriz, hilak 2, eguerdiko 12etako mezaren ostean Agirre eta Lazkano bertsolariak


arituko dira bertsotan, Agarre-Txiki eta Mintxeta trontzalariak, Biurri aizkolaria eta Kortaberri eta Xabin trikitalariekin batera. Eguerdiko 2,30etan bazkaria izango da Aizpe elkartearen, trikitalari eta bertsolariak alaituko dutelarik giroa.



Egaita

## Erloju berria Azpilgoetako elizan

Azpilgoeta elizan erloju berria jarri dute. Aurretik zegoena 1813. urtekoa zen, Bergarako Zugasti enpresak egina. Erloju hura harrizkoa zen eta izan dezakeen balioa dela eta gorde egin da. Berria, oster, elektronikoa da, metakrilatozko esferaduna eta zenbaki erromatarak dituena. Bodet markakoa da eta 930.000 pta. balio ditu. Erloju berriak orduak, ordu erdiak eta Angelusa jotzen ditu (7:32, 12:05 eta 19:32 orduetan).





*Ikastolako irakasle lane-  
tan ibiltzeaz gain hurrek  
ikasteko behar duten ma-  
teriala prestatzen ere ari-  
tzen da. Bigarren lantzat  
duen arlo honetan libu-  
ruez gain bideoak ere egi-  
ten ditu, baidanik bere  
zaletasunetarako bat izan  
dena. Txikitik hasi zen  
argazki kamara eta super  
zortziarekin, zinek ka-  
mara txikiarekin. Gero  
bideoari ekin zion piska-  
naka-piskanaka, eta baita  
argazkilaritzari ere.*

# JAVIER LARRAÑAGA

## “Bideoak maila didak- tikoan egiten ditut”

- Zein izan zen lehenengo lana?

- Dokumentalei dagokio-  
nez erakusteko moduko le-  
henengo lana arkeologiare-  
kin loturikoa izan zen. Ika-  
stolen Federazioan ari nintzen  
materialgintzan, testu libu-  
ruetan azterketak egiten eta  
garai hartan arkeologia talde  
batean ere ari nintzen, eta or-  
duan pentsatu genuen geneu-  
kan informazioarekin lan bat  
egitea.

- Honez gain erreformari  
aurre egiteko materiala  
prestatzen ere ibili zara.

- Euskarazko testu-libu-  
ruak prestatzen aritu naiz eta  
material honekin batera, or-  
dura arte ohikoa zen kasetea  
atera beharrean guk bideo bat  
atera genuen. Euskara komu-  
nikatzeko behar dugunez,  
ikasleari gaitasuna eman be-  
har zaio hizkuntza tresna be-  
zala erabiltzeko eta berak di-  
tuen sentimenduak, nahiak

eta beharrak adierazteko.

- Lan berriren bat presta-  
tzen ari al zara orain?

- Urtaro ezberdinekin lo-  
turiko Euskal Herriko ohitu-  
rei buruzko materiala pre-  
statzen ari gara, ihauteriei bu-  
ruzkoak, Santa Ageda... Ger-  
tatzen dena da lan hauek pis-  
kanaka egin beharrekoak di-  
rela.

- Bideo didaktikoez gain  
beste motako bideoen bat  
egiten al duzu, adibidez,  
etxeokekin edo?

- Bideoak maila didakti-  
koan egiten ditut, irakas-  
kuntzarekin loturik daude-  
nak. Bestelako bideoak egi-  
teko denborarik ez daukat eta  
etxeokak gehiago daukat ar-  
gazkitan bideotan baino, bi-  
deoaz piskat aspertuta egoten  
bainaz. Egia da, bestalde, la-  
na bihurtzen zaizunean mo-  
mentu batzuetan gusturago  
egoten zarela lepotik ezer  
zintzilik eduki gabe.

- Zein da grabatu duzun  
bideoetatik gustukoena du-  
zuna?

- Bakoitza egiten duzu-  
nean nahi duzu onena egitea,  
momentu horretan egin de-  
zakezun guztia eskaintzen  
diozu. Amaitzen duzunean,  
ahaztu hori.

Nolabait beste gauza bati  
begira zaude, orain atal bate-  
kin ari gara, baina hurrengo  
atalean hori hobetzea nahiko  
dugu eta aurrez ikusi ditugun  
akatsak gainditzea, akatsak  
beti ikusten dituzu. Orduan  
egiten ari zarena da beti ede-  
rrena.

- Zein sari jaso dituzu?

- Lantxo didaktikoez  
Eusko Jaurlaritzaren sari bat  
jaso zuten, baina lan hauetan  
jende askok hartzen du par-  
te, ez da nere lana bakarrik.  
Hasieran super zortziarekin  
egindako laburmetraiekin  
ere hainbat sari jaso genituen  
Gasteizen, han ibiltzen ziren  
Juanma Bajo Ulloa eta  
hauek ere.

- Zer nahiago duzu, labur-  
metraiak egitea ala orain  
egiten duzun lana?

- Laburmetraiak egiten  
genituenan gehiago zen tal-  
de bat osatu, batzuei antzez-  
lana gehiago gustatzen zi-  
tzaien, besteei alde tekniko-  
a, historia bat kontatzea zen  
helburua. Lagun giroan ibil-  
tzen ginen eta ondo pasatzen  
genuen. Orain egiten dudana  
serioagoa eta astunagoa da,  
baina niri gustatzen zait, nire  
lanarekin lotuta dago.


- Zer da bideoak duen  
prozesutik gustukoena du-  
zuna?

- Gustukoena dudana edi-  
tatzea da, mahaian jartzen  
dituzu irudiak eta hor hasten  
zara osaketa egiten. Graba-  
tzea beti astuna bihurtzen da.

Leire Urkidi

### BESTEAK ESANA

“Irudiaren munduan autodidakta izanda kriston  
kalitatea sortzen du” SEBAS LARRAÑAGA





**A**

Itzolako zubian ateratako argazki hau bertan azaltzen den batek ekarri digu. Orain dela hogeita hamabi bat urte atera zuten, ejerzizio espiritual batzuen bueltan hain zuzen ere.

Argazkikoak zein diren? Hona

hemen izen-abizenak:

Goitik hasita: **Jose Mari Mugerza (†)**, **Esperanza Unzilla**, **Karmele Gabilondo**, **Yolanda Gabilondo**, **Santi Zabaleta (†)**, **Carmen Bergaretxe**, **Felisa Garate**, **Vicente Abasolo (†)**, **Ignacio Garate** eta **Virginia Bollain**.

Behean makurtuta: **Eustasio Goñi**, **Jose Luis Belloso** eta **Etxebarria**.

<p><b>LASA</b> <b>JATETXEA</b></p>  <p>OZAETA JAUREGIA (Bergarako hegoaldeko irteera)</p>	<p>MONUMENTU NAZIONALA</p>  <p>Tel: 76 10 55 <b>BERGARA</b></p>	<p>Aste honetako <b>DEGUSTAZIO MENUA</b></p> <p>Ahate gibelaren aspik trufatua          * Holandar tosta          Txangurroz betetako legatza          * Orein errea bi saltsafan          * Sorbeteak aukeran          Ogia, 3 urteko l. 1/2ko ardoa edo ur minerala          * Kafea eta pikatzeoak  <b>4.900 pta. + BEZ (%7)</b></p>
<p><b>EZKONTZETARAKO</b> <b>JANGELA</b> <b>ZABAL</b> eta <b>APROPOSA</b></p>	<p><b>PARKING PRIBATUA</b> <b>TERRAZA</b> eta <b>LORATEGIA</b></p>	

**Denok**

**Demokrazia**  
Euskal Herriarentzat

# GREBARA

**Martxoak**

**7**

**Greba  
orokorra**

**ELGOIBARKO HERRI BATASUNA**





“Futbolian jokatziaगतik lagako det atletismoa”



Mireia Huidobro

- **Adina:** 13
- **Komikiak ala bideojokoak?**  
Bideojokoak
- **Jantziko ez zenukeen erropa bat?** Soinekoak
- **Zer ordurarte egiten duzu lo?**  
Asteburuetan beranduenez 11k arte; ez naiz oso lotixa.

- **Egia al da atletismoa uztekotan zabiltzala?** - Bai. Aurten denboraldia amaituko det baina datorren urtian erretirau eingo naiz. Oin arte ez naiz entrenamenduetara jun baina pasa dan zapatuan Ikastolakuok Euskadiko txapelketarako sailkatu ginanez, berriro hasteko asmua dakat. Hala ere, nere benetako zaletasuna futbola da.

- **Futbola al da orduan atletismoa uzteko arrazoia?** - Bai, neri txikitatik gustau izan jata eta horregatik lagako dot atletismoa. Altetismotik gainera gehixen gustatzen zitzaidana luzera jauzia zan. Oindiok futbolian jokatzten hasteko gaztia naiz baina datorren urtian hasiko naiz seguruen. Entrenamendu batzuetara jun naiz eta entrenadoriarekin berba ein naban eta badaki jokatzeoko gogua dakatela.

- **Ez al dago bi kirolak egiterik?** - Arazua da futbol partiduak zapatu edo domekan izaten diala eta atletismo lasterketak ere orokorrian igandian izaten diaz. Gainera bixetan ibiltzia gehixegi izango da.

- **Dena dela, atletismoa egin izan asko lagunduko dizu futboleant, ez?** - Bai. 9 urtekin edo hasi nintzan atletismuan, hau da, benjaminak, alebinak eta infantilak pasau ditzut. Urte hauetan karreretan erresistentzia asko landu dot, baitxa altura, luzera jauzia eta beste atletismo froga batzuk ere ein

izan ditzut. Atletismuari esker indar eta potentzia gehixo dakat eta futbolerako lagungarri izango da, dudarik gabe.

- **Urte hauetan guztietan zenbat titulu eskuratu dituzu?** - Oin dala bi edo hiru urte Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua lortu naban krosian eta Euskadiko txapelketan bosgarrenak izan ginan taldeka. Txapelketa horretan Gipuzkoako lehenenguk geratu ginan.

- **Atletismoan etorkizun handia zenukela esaten zuten adituek.** - Bai, baina neri futbola da gustatzen jatana. Badakitx futbolian gaur egun dauan matxismuakin ez dauala mutilen futbolian bezelako aukerarik. Pena bat da futbolian oso ona izan arren neskia izatiगतik ez zerala sekula oso gora helduko.

- **Atletismoa uzteगतik “bronkari” jaso duzu?** - Familixian aldetik batez ere. Esaten diate futbolian ez dauala etorkizunik eta oso ondo nabilela atletismuan baina nik argi dakat futbola dala nere kirola.

- **Futboleant idolorik?** - Ronaldo eta Schtoikov baina nere ekipua Realada. Barcelonak eta Errealak aurrez aurre jokatzten badabe, nahixo dot Realak irabaztia.

- **Zer esango zenioke atletismoan hasi berri den gaztetxo bati?** - Zerbait lortzeko entrenamendua bihar dala eta gogor aritzeko, preparametako eta animo.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Otsailak, 22 - 14.)

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■  
Ikas Txut 8 - Pilar Lakasitos 0  
Mendaro A2 4 - Ikas Zirt 4  
Ikas Marrazo 3 - Mendaro A1 6  
Ikas Kirol 2 - Pilar Flash
- **Benjamin neskak** ■  
Ikas Zart 5 - Mendaro B 1  
Ikas Izurde 0 - Ikas IZar 5

SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak** ■  
Ikas Txuri 12 - Ikas Pirri 13  
Ikas AMantis 27 - Pilar Inter 2
- **Alebin neskak** ■  
Ikas Gorri 0 - Ikas Katxondak 2  
Bremilins 2 - Pilar Manchester 0  
Peña Insti 27 - Pilar Girls 7

AGENDA (Martxoak 1 - 15.)

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak (IMHn)** ■  
9:30 Ikas Kirol - Ikas Zirt  
10:00 Ikas Marrazo - Pilar Lakasitos  
10:30 Pilar Flash - Mendaro A1  
11:00 Mendaro A2 - Ikas Txut
- **Benjamin neskak (IMHn)** ■  
11:30 Mendaro B - Ikas IZar  
12:00 Ikas Izurde - Urasandi  
12:30 Ikas Zart - Pilar Kas

ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak (Pilarrean)** ■  
9:00 Pilar All Star - Pilar Ajax  
9:45 Ikas Eguzki - Pilar S. German  
10:30 Ikas Axelkoak - Herri Boomerang  
12:00 Ikas Otsokoak - Herri Manchester

11:15 Ikas Ilargi - Mendaro D

- **Alebin neskak (Pilarrean)** ■  
9:00 Ikas BEder - Pilar Mix  
9:45 Ikas Txingor - Pilar S. Girls  
10:30 Ikas Trumoi - Herri Women's  
11:15 Ikas LAino - Mendaro C

- **Infantil mutilak (Urasandin)** ■  
9:45 Ikas Urdin - Ikas Txuri  
10:30 Ikas AMantis - Ipurterreak  
11:15 Herri Milan - Ikas Pirri  
12:00 Pilar Boys - Pilar Inter

- **Infantil neskak (Urasandin)** ■  
10:30 Gremlins - Ikas Beltz  
11:15 Peña Insti - Ikas Katxondak  
12:00 Pilar Girls - Pilar Manchester

## Gorka Sanchez eta Ana Etxaniz Gipuzkoako eskolarteko txapeldunak

Ikastolak alebin nesketan irabazi zuen eta Mintxeta taldea bigarren izan zen klubaren sailkapenean

**G**ipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa burutu zen joan den igandean Mintxetako Udal Pistan.

Elgoibartarrak ezin hobeto aritu ziren, kadete eta alebinetan bi txapel lortu baitzituzten, Gorka Sanchezek eta Ana Etxanizek, hain zuten. Ikastetxeka, Ikastolak lehen postua eskuratu zuen eta klubaren sailkapenean Mintxeta Atletismo Taldekoak bigarrenak izan ziren.

Goiz eguzkitsu bezain haizetsuarekin hasi zen Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa alebin, infantil eta kadeteen kategorietan. Mintxeta II. Sarian Gipuzkoako herri ezberdinetako ikastetxeetako 500 bat lasterkerik hartu zuen parte.

Lehen lasterketa alebin neskena izan zen eta bertan eskuratu zuten elgoibartarrek lehen domina. Ana Etxaniz elgoibartarrak aise egin zituen 1.738 metroak, 6'68"tan hain zuzen ere. Kategoria honetan Ikastolako ordezkariak lehen postua lortu zuten ikastetxeen sailka-

penean. Ana Etxaniz, Maialen Mora, Alaitz Merino, Ainara De Pedro eta Gorane Salaberriak osatzen zuten taldea.

### Gorka Sanchez-en nagusitasuna

Gorka Sanchezek atletismoan etorkizun ezin hobea duela erakutsi zuen domekan egindako lasterketarekin. Oso argi jokatu zuen hasieratik, arerioak gertutik zainduz. Azken itzulian erasoari ekin zion eta helmugara heltzerako bigarren sailkatuari atera zion aldea izugarria izan zen. Donostiako Atlético taldearen izenarekin korritzen duen elgoibartar honek 19'11"tan burutu zuen 2.676 metroko distantzia.

### Mintxeta Taldearen zozketa

Mintxeta Taldeak dirua biltzeko antolatutako lehen zozketan 8.060 zenbakia izan da saritua.

### Elgoibartarren sailkapenak

#### ALEBIN NESKAK

- 1- Ana Etxaniz
- 12- Maialen Mora
- 14- Alaitz Merino
- 18- Ainara De Pedro
- 22- Gorane Salaberria

#### ALEBIN MUTILAK

- 8- Javier Ausin
- 17- Unai Etxeberria
- 21- Julen Merino

#### INFANTIL NESKAK

- 11- Evelyn Santos
- 12- Mireia Huidobro

#### INFANTIL MUTILAK

- 36- Angel Quintana

#### KADETE MUTILAK

- 1- Gorka Sanchez



Ana Etxaniz goian 6.a eta Gorka Sanchez behean 1goa, Mintxeta taldeko korrikalari guztiekin.

### EMAITZAK

#### Futbola

Gazteak 2 - Pedrusko 0 (2. erreg.)  
Elgoibar 1 - Intxaurren 0 (Neskak)  
Hamaikak Bat 1 - Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Antoniano 0 - Elgoibar 2 (2. jub.)  
S. Patricio 4 - Elgoibar 7 (Oho. kad.)  
Alaves 3 - Haundi 0  
Añorga 6 - Elgoibar 1 (Infantilak)  
Urola 1 - Elgoibar 2 (Oho. jub.)

#### Saskibaloia

Uztapide 73 - Elgoibar S.T. 68

#### Eskubaloia

Urnieta 15 - Unceta Elg. 25 (Kad. nesk.)  
Arrasate 9 - Pneumax Elg. 26 (Kad. mut.)  
Usurbil 21 - Pagoaga Elg. 21 (Jub. nesk.)  
Tecnomeca Elg. 26 - Zarautz 25 (Jub. mut.)  
Jauja 20 - Hyundai 20 (Seniorrak)

#### Futbitoia

Berrogei Duro 1 - Orbela 7  
Aurten Bai 3 - S. Pitxote 8  
Udaberri 1 - Karkis 2  
Kunta Kinte 5 - Zazpi 9

#### Areto futbola

Antxeta 5 - Elgoibar 4 (1. maila)  
Ondarre 5 - Elgoibar 3 (Autonomikoa)

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 1  
13:30 S.D. Eibar - Urki (1. kad.)  
16:30 Haundi - Lagun Onak  
18:15 Elgoibar - Kilimon (1. erreg.)  
Igandea, 2  
9:00 Urki A - Soraluze (2. jub.)  
10:45 Elgoibar - Lagun Onak (Oho. kad.)  
12:30 Eibar - Mondragon (1. erreg.)  
14:45 Eibartarrak - Ilintxa (2. jub.)  
16:00 Elgoibar - EUuskalduna (Oho. jub.)  
17:45 Urki B - Alde Zaharra (2. jub.)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 1  
16:00 Pagoaga Elg. - Hernani (Jub. nesk.)  
17:30 Arrasate - Almen (Kad. mut.)  
Igandea, 2  
12:15 Unceta Elg. - Usurbil (Kad. nesk.)

#### Futbitoia, Kiroldegian

Igandea, 2  
9:00 Orbela - Zazpi  
10:00 Karkis - Kunta Kinte  
11:00 Aurten Bai - Berrogei Duro

#### Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 1  
19:00 Elgoibar - Kevian Sport

#### Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 1  
10:00 Eskolarteko atletismoa

## ● Udal Kultur ekintzak iragartzeko bitrinak

Udal Kultur Zerbitzuak publizitaterako hiru bitrina jarri ditu kultur ekitaldi eta iharduera ezberdinak bertan iragartzeko. Bitrinak jarri diren lekuak hauek dira: Madala, San Bartolome kaleko horma bat eta Merkatu Plaza. Kristalezko bitrina hauek Madrilen erosi dituzte eta 120.000 pta.ko kostua izan dute. Kultura Saitetik adierazi bezala, "Udalak bai bakarka bai herriko kolektiboekin elkarlanean antolatzen dituen ekintza guztien berri emango da bertan, zinea dela, antzerkia dela..." Printzipioz udal iharduerak iragartzeko bada ere, lekurik egonez gero, kolektiboen ekitaldiak iragartzeko aukera izango da.

## ● Gemma



## Monreal-en erakusketa kolektiboa Eibarren

Martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela-eta, Eibarko Arrate Kultur Elkarteko Topaleku aretoan Deba Beheko 15 emakume margolarien erakusketa martxan dago. Gemma Monreal elgoibartarrak bi koadro izango ditu ikusgai: "Caserones de Navarra" eta "Aldeas". Erakusketa martxoaren 9ra arte egongo da irekita.

## Traspasos taldearen "Pasarela" antzezlan izango da larunbatean

Tanttakaren "Florido Pensil" berriz etorriko da martxoaren 22an

*Martxoan zehar hiru antzezlan ezberdin ikusteko aukera izango dugu Elgoibarren. Lehen saioa larunbatean izango da, martxoak 1, "Traspasos" en eskutik, Haizea Emakume Taldeak martxoaren 8ko Emakumearen Eguna ospatzeko antolatu dituen ekintzen barruan. Hurrengo lana Korrikaren bueltan izango da "Igurtzi nazazu berriro laztana", martxoaren 8an eta azkenik, "Florido Pensil", martxoaren 22an.*

**P**asarela antzezlanak modaren munduaren beste aurpegia erakutsi nahi du. Desfilea, dantza eta interpretazioa dira zutabe nagusiak. Pasarela biribil batean, moda desfilean ari diren modeloek barruko euren izateari ihes egiten uzten diote, emakume soil bezala agertuz. Aurpegiak gabeko bost emakume, bapatean, euren emozioak eta harremanak azaltzen dituzten aurpegidun emakume bihurtzen dira. Ikuskizun alaia da, eta ironikoa. Antzezleak Ana Elordi, Elena Atienza, Inma Fdz. de Betoño eta Miriam Martin dira. Zuzendaria, berriz, Mikel Gomez de Segura. Traspasos taldeak honako lan hauek taularatu ditu gaurdaino: "Iendo", "Caballos al viento", "Sielas", "Sisifo", "Sombrisas", "Aparecidas", "16 coreografías para ETB" eta "pasarela". Honez gain, talde honek hamaika alditan koreografiak egin izan ditu enkarguz. "Pasarela" antzezlan Herriko Antzokian izango da gaueko 22:30etatik aurrera.

### Erotismoa

AEK-k eta Lanbroak kafetegiak Korrikaren ospakizunen artean antolatu dute "Igurtzi nazazu berriro laztana emanaldia". Mikel Markez abeslaria, Asier Serrano poeta eibartarra eta Jose Mari Carrere ipuin-kontalaria dira erotismoaren inguruko lan honen egile eta pertsonaiak. Martxoaren 8an antzeztuko da Lanbroa tabernan.



*Modari buruzko kontakizuna da "Pasarela".*

### "Florido pensil"

Duela pare bat hilabete egon ziren Tanttakakoak Elgoibarren "Florido Pensil" lanarekin baina jende asko Herriko Antzokira sartu ezinik geratu zenez, Tanttakakoek Elgoibarrera berriz etortzea erabaki dute. Elgoibartarren artean emanaldiak izan zuen arrakastak bultzatu ditu "Florido Pensil" berriz antzezttera. Oraingoan prezioa ez da Udalak jarritakoa izango, antzeztaldekoek baizik. Martxoaren 22an, larunbata, bi saio egongo dira: arratsaldeko 19:30etan euskarazkoa eta gaueko 22:30etan gaztelaniazkoa. Sarreraren zenbatekoa 1.000 pta.koa izango da.

# Zertarako balio du Gazte Txartelak?

*14 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta 500 pta.rengatik eskura daiteke. Gaur egun EAEan 110.000 gazte inguruk dauka Gazte Txartela eta 1.400 dendatan deskontuak dauka txartelarekin erosten dutenez. Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik, Estatuan eta Europako beste 30 herrialdeetan ere erabil daiteke.*

**H**asiera batean ekitaldi kulturaletan jende gazteak prezio bereziak izan zitzen pentsatua sortu zen Gazte Txartela. Era honetara, antzerkiak, kontzertuak, dan-tzaldiak edo bestelako ikuskizunak antolatzen ziren guztietan, joan nahi zuten gazte guztiak ohiak baino sarrera mer-

keagoa eskura ahal izango lukete. Halere, sortu zenetik gaur egunera dextente hedatu da txartelak eskaintzen dituen abantailen zerrenda.

Normalean %10ekoa izaten da gazte hauei egiten zaien deskontua baina zenbait kasutan %25era irits daiteke, esate baterako Renfek eskaintzen dituen hainbat zerbitzutan.

Halere, gaur egun denda eta komertzio askotan aurki daiteke aipatu deskontua. Euskal Autonomi Elkartearen 1400 inguru dira beharpenak egiten dutenak eta horietatik 520 inguru Gipuzkoan bertan daude. Gehien-

bat gazteei zuzendutako produktuak saltzen dituzten komertzioak izaten dira.

## Txartelarekin batera, gida

14 eta 25 urte bitarteko gazteak txartelarekin batera gida bat eskuratzen du. Bertan datoz zehaztuak zein diren Gazte Txartelak eskaintzen dituen abantailak. Besteak beste, autoeskolak, kirol zerbitzuak, gimnasioak, hizkuntza akademiak, arropa dendak, argazki dendak, optikak, liburudendak, bidaia agentziak, Kultur ekintzak, bitxidendak, edergintza zentroak eta abar lu-

ze bat. Gainera, duela bi urtetik hona Gazte Txartela deskontu txartel bezala ezezik, dirua atzeratzeko txartel bezala ere erabil daiteke.




## Gazte Txartelak eskaintzen dituen abantailak

- 500 pta. balio du eta Kutxako edozein bulegotan jaso daiteke Nortasun Agiria aurkeztuz. Izan ere, Txartel bakoitza titullarrak bakarrik erabil dezake.
- Europako Gazte Txartelarekin homologatua dago.
- Aisialdiko ihardueretan eta ekitaldi kulturaletan beharpenak eskaintzen ditu. Era berean, erakunde publikoetatik (Diputazioa, udaletxeak, patronatuak...) zenbait material doan aloka daiteke.
- Renfe eta FEVEk %25era arteko deskontuak egiten ditu zenbait tren eta

ibilbidetan.

- Bidaia agentzia batzuetan atzerria joateko SATA-USIT hegazkin-txartelaren prezio bereziak izaten dira.
- Urteko 1.000 pta.ko kostua duen 500.000 pta.ko istripu aseguruua.
- Meliá y Sol kateko hoteletan %10eko deskontua.
- EAEko hiru kuxtetan kreditu, aurrezki plan eta bestelakoetan kondizio bereziak.
- Gazte Txartelaren indikatiboa dagoen komertzio, autoeskola eta bestelakoetan %10 eta %15eko deskontuak.



Dani Arenas

20 urte

“Oin in bihar nabán motorrán karneta etartzeko deskuentoren bat dakalako baina usten dot ez dabala gehixegi konpensatzen. Egixa esan ez dakit oso ondo ze bentaja dakazen. Oin dala urte asko euki nabán baina ez nabán ixa erabili. Akordatzen naiz zela Galiziará jun nitzan eta pegatinia zakan denda batian esan zien ez zabela onartzen”



Ainhoa Urbieta

24 urte

“Oin ez dakat. Lehen erabiltzen nabán erropia erosteko batez ere. Txartelakin batera liburu bat ematen dizue eta bertan jartzen dau zertarako erabili dezakezun baina egixa esan gero askotan ez dozu erabiltzen gainan ez dakazulako edo ez zeralako konturatzen balio dabala...”

INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emailak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udalzaingoa . . . . 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia. . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21

28  
ostirala

22:15 ZINE KLUBA  
 "Ridicule"

1  
larunbata

19:00 EMAKUMEEN  
 ERAKUSKETAREN  
 AURKEZPENA  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Haizea  
 Emakume Taldea

22:30 ANTZERKIA  
 Antzezlan: "Pasarela"  
 Antzetzaldea: "Trasposos"  
 Antolatzailea: Haizea  
 Emakume Taldea

2  
igandea

19,30- 22:15 ZINEA  
 "Sleepers"

3  
astelehena

22:15 ZINEA  
 "Sleepers"

4  
asteartea

19:00 HITZALDIA  
 Gaia: Anorexia eta  
 bulimia  
 Hizlariak: Akabe  
 taldekoak  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Haizea  
 Emakume Taldea

6  
osteguna

20:00 BAKEAREN  
 ALDEKO FOROA  
 Aurkezlea: Jonan Fernán-  
 dez Elkarriko kidea  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Elgoibarko  
 Elkarri

7  
ostirala

18:30 ODOL  
 ATERATZEA  
 P. Urruzuno 8an

22:15 ZINEA  
 "Secretos y mentiras"

ZIN



"Sleepers"

Zuzendaria: Barry Levinson  
 Antzezleak: Brad Pitt, Robert De  
 Niro, Kevin Bacon, Dustin Hoffman.

60. hamarkadan New York-eko "Cocina del Infierno" izeneko auzoan bizi diren lau mutiko, txantxetan ari direla istripu bat gertatzen da. Saltzaile bat kasik hil egiten da eta lau lagunek gartzelan amaitzen dute. Epailak 18 hilabetez adin gutxikoen zentro batean pasatzera kondenatzen ditu. Bertako nagusiak, sadiko pedofilo batek, tratu txar eta sexualak jasanarazte ndizkie. 13 urte beranduago, mutikoak helduak bihurtu dira eta euren erara mendekua bilatuko dute.



goki eRreformak, s.l.  
**ERREFORMAK**

**FATXADAK ETA TEILATUAK**

**OBRAK OROKORREAN**

DEBA KALEA 12  
 TEL.: 74 42 23  
 20870 ELGOIBAR



## ● Martxoak 8ko ospakizunak

Datorren martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna ospatzen dela eta, Haizea Emakume taldeak hainbat ekintza antolatu ditu. Batetik, bihar, martxoak 1, pintura, gantxilo eta artisau lanen erakusketa hasiko da Kultur Etxean. Erakusketa martxoaren 10era arte luzatuko da. Egun berean, Traspasos taldearen "Pasarella" antzezlanak ikusteko aukera izango da gaueko 10:30etatik aurrera. Igan-dean, martxoak 2, Elgoibarko hainbat emakume Donostiako Lilaton lasterketara joango dira eta bidenabar, gainontzeko emakumeak parte hartze- ra edo ikusle modura joa- tera gonbidatu nahi dituzte. Martxoaren 4an, aste- artea, "Bulimia eta anore- xia"ri buruz jardungo du- te "Akabe" taldekoek. Hitzaldia iluntzeko 19:00etan izango da Kul- tur Etxean. Hurrengo os- tiralean, hilak 7, "Secre- tos y mentiras" pelikula emango da eta martxoar- en 8an, emakumeentzako bazkari herrikoia antolatu da Aubixan.

### Ongarri zine-kluba

Datorren astean ez da pelikularik egongo. Hurrengo proiektzioa mar- txoaren 14an izango da, Ongarrik eta Korrikak elkarlanean antolatuta- ko Arantxa Lazkanoren "Urte Ilunak".

## ● Zuhaitz Eguna

Datorren ostiralean, martxoak 7, Zuhaitz Eguneko ekitaldiak izan- go dira. Aldundiak bida- litako zuhaitzak herriko leku ezberdinetan landa- tuko dituzte ikastetxee- tako hurrek.



## ● Odol ateratzea

Datorren ostiralean, martxoak 7, odol atera- tzea saioa izango da P.M. Urruzunoko 8ko egoitzan. Ordutegia ohi- koa izango da: arratsal- deko 6:30etatik 8:30eta- ra bitartean.

## ● Zinea eta Osasuna

Udal Ongi- zate Sailak ikastetxeetako irakasleekin el- karlanean Zinea eta Osasuna programaren saio berri bat natolatu dute da- torren astelehe- nerako, martxo- ak 3. Goizeko

9etan eta eguerdiko 12etan "Africa" pelikularen emankizu- na ikusteko aukera izango dute ikasleek. Iluntzeko 7etan, ohi denez, gurasoen txanda izango da. Proiektzioaren oste- an debate saioan parte hartzeko aukera izango dute.



## ● Gazteen topaketa Parrokiaren eskutik

Parrokiak, Taize-ko Gazte Taldeak eta Gazteria Sailak antolatuta, gazteen topaketa izango da Elgoi- barren, gaur, hilak 28, eta bihar bitartean, martxoak 1. Iluntzeko 7ak aldera 16 eta 17 urteko 60 bat gazte el- kartu dira Plazan. Gaueko 22:00etan adiskidetzeari buruzko gaubela hasiko dute eta bihar, larunbata, goizeko 9:30etan gogoeta biblikoari ekingo diote. 10etan talde lanen txanda izango da eta 12etan ma- haingurua egingo dute Pilar ikastetxean. Bazkariaren ondoren eukaristia eta agu- rrerako ordua iritsiko da. Ekimen honen lema "Adis- kidetzea Bizi" da. Elgoiba- rren egongo diren bi egu- notan herriko familietan bi- ziko dira eta bakea, arrazis- moa eta marjinazioa beza- lako gaien bidez elkartasun giroa landuko dute.



## ● Bakeraren aldeko foroak

Elgoibarko Elkarriko tailer lokala bakearen aldeko foroak antolatzen ari da. Lehenengo saioa due- la hilabete batzuk burutu zen; datorren ostegunean, beraz, martxoak 6, bigar- ren saio bati ekingo dio Elkarrik. Saioaren helbu- rua herriko pertsona ez- berdinek bakearen ingu- ruan dituzten iritzi eta ekimen ezberdinak plaza- ratzea da. Datorren oste- guneko saioan Elkarriko Jonan Fernándezek parte hartuko du bere eginkizu- na moderatzaile lanak egitea izango delarik. Saioa Kultur Etxean izan- go da iluntzeko 8etatik aurrera.

## TXAN-DAK

### FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
28	Bidasolo	Escala
1	Bidasolo*	Bidasolo
2	Bidasolo*	Bidasolo
3	Bidasolo	Bidasolo
4	Yudego	Yudego
5	Ormazabal	Ormazabal
6	Yudego	Anduaga
7	Etxeberria	Zabaleta

\*(eguerdiko 2ak arte)

### OKINDEGIA

2 igandea Idarra



1997ko otsailaren 18an, 47 urte zituela hil zen **RAMON AYERDI LARRAÑAGA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Arranean egiteko aparailua salgai. Mari Carmen ☎ 74 01 86 (9:00-13:00 eta 15:00-20:00)
- ◆ MIBI 4X4 etxe-furgoneta bat salgai. Teilatu altzagarria, guztiz ekipatua, estra askorekin. ☎ 76 04 47
- ◆ "LETRERO DE MENSAJES" delakoak saltzen ditut era guztietako komertzioetarako, taberna eta jatxeetarako bereziki fabrikatuak. Berriak eta gutxi erabiliak. Prezioa hitzegitekotan. ☎ 74 00 38
- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatiblea salgai. (Mikel) ☎ 74 19 21
- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatua berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30
- ◆ EROSI ◆

## Partikularrak

- ◆ Euskarako Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Javi
- ◆ Microsoft Office-i buruzko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da Elgoibarren. (8,00-17,00) ☎ 74 06 00
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Ingeleseko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 15 82 Edu

## Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat daukat alokatzeko Arregitorren. ☎ 74 22 11 (Eguerdián)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, pista beltzean. ☎ 74 33 52
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10
- ◆ Garajea daukat alokatzeko pista beltzean, labaderoa erabiltzeko eskubidearekin. ☎ 74 01 77

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Klinika auxiliarra eta psikiatra auxiliarra gaixoak zaintzeko rest dago. ☎ 74 05 45
- ◆ Neska batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. ☎ 74 30 84 (Reme)
- ◆ Haurrak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 22 78
- ◆ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ 74 22 86 zenbakira.
- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. ☎ 74 30 30
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Informatika enpresa batek lan egiteko eta ikasteko gogoa duen 28 urtetik beherako informatika lizentziatua behar du. ☎ 74 37 04 (Miryam)
- ◆ Piezen Mekanizazioan espezializaturiko enpresak behar du: fresatzeko CNC makinarako fresatzaila edo zutabe mugikor eta begietako bistagailua duen Juaristi makinarako mandrinatzailea. Ezinbestekoa: kontrol numerikoa jakitea eta euskaraz hitz egitea. Interesatuak dei ☎ 74 12 97/74 06 64

## Etxebizitzak

- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. Erabili gabe dago. ☎ 75 51 77
- ◆ Pisu amoblaturak alokatzen da San Frantzisko kalean, 3 gela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. ☎ 94 43 06 196 (gauzez)
- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldea, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ◆ Pisu daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ 74 01 34
- ◆ Pisu salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. ☎ 12 72 22
- ◆ Pisu salgai San Inazio kalean. 90 m<sup>2</sup>koa. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04

## Bestelakoak


- ◆ Zortzi-hamar urte bitarteko ume batentzako bizikleta oparitutako nukle. ☎ 74 44 34
- ◆ Madala inguruan almazenerako lokal bat alokatzen da. ☎ 74 13 84

## Agurrak

- ◆ Zorionak **Jose Angel** eta **Mireia** zuen urtebetetzean. Ama-txoren partez.



- ◆ Zorionak **Marina Ortuosteri** hilaren 26an 6 urte bete zituelako, guraso, anaia Roke eta osaba-izeben partez.



- ◆ Zorionak **Loinez Agirrezabalari** otsailaren 24an urteak bete zituelako Alazne eta Nagoreren partez.



- ◆ Zorionak **Ainhoa Lendinezi** martxoaren 5ean 16 urte beteko dituelako. Aitor, izeba eta familia osoaren partez.



- ◆ Zorionak **Andoni Hernandez** hilaren 6an urte 1 beteko duelako bere arreba Maria eta familia osoaren partez.



- ◆ Zorionak **Bidatz** nahiz eta astelehena egun txarra izan zure urtebetetzea ospatzeko, zure lagunok egun on bat igarotzea opa dizugu. 19



- tirakada belarrietatik eta 10 musu haundi. Zure lagunak.

- ◆ Zorionak **Eider Rodriguez** otsailaren 24an 2 urte bete zituelako. Bere guraso eta neba Jonen partez.



## Agurrak



- ◆ Zorionak **Naiara**, oraingo honetan ere hemen gaituzu. Egun on bat pasaezazu bihar, larunbata, zure lagun guztiekin.

baina gehiegi ENPATXATU gabe. Zure lagunak.

- ◆ **Angel Conderi** zorionak martxoaren 1ean 36 urte beteko dituelako. Familiaren partez.




- ◆ **Rose Mary**. Gero eta gazteago zaude. Zein da zure sekretua? Zorionak preziosa! Maik eta Majoni.

- ◆ **Ana Etxaniz** zoriondu nahi dugun igandeko kroesean Gipuzkoako txapeluna izan zelako lehenengo postua lortuz. 6. mailakoen partez.



- ◆ Zorionak **Alazne Escuderi** otsailaren 25an 9 urte egin zituelako, ahizpa eta gurasoen partez.



- ◆ Zorionak **Patxi Loiolari** martxoaren 5ean urteak egiten dituelako bere familiaren partez.



- ◆ Zorionak eta musu handi bat **Mirari Zubizarretari** bere familiaren partez, otsailaren 27an bere urtebetetzea izan zelako.

- ◆ Zorionak **Amets Izagirre** atzo, hilak 27, 12 urte bete zituelako. 6. mailako neska-mutilen partez, bereziki mutilen partez.

- ◆ **Loinez Polori** zorionak gaur, 28, 13 urte bete dituelako. Guraso eta anaiaren partez.

- ◆ Zorionak **Jon Anderri** otsailaren 24an 8 urte bete zituelako Itsaso Alguacil eta Itsaso Perzen partez.

- ◆ Zorionak eta musu handi bat **Mari Tereri** gaur, hilak 28, bere urtebetetze eguna delako. Maialen eta Aneren partez.

# 2x1 · 2x1 · 2x1

Aukera berezia larunbat honetan bakarrik, martxoaren 1a,

## AZKEN EGUNA BEHERAPENETAN




# GARATE

Jantzi - Denda

*Asteartetik aurrera Udaberria hasten da GARATEn!*

San Bartolome, 13 - Tel. 74 11 29 - ELGOIBAR





**Ba al dakizu zenbat baserri dauden Elgoibarren?  
Zeinizen duten? Non dauden?**

**Galdera hauen erantzunak eta  
beste informazio asko aurkituko  
duzu kaleratu berri den "Elgoi-  
barko Baserriak" Gida-liburuan.**

**2.000 pta.**

Honako denda hauetan aurkituko duzu salgai:

**GOROSTIZA · PITXINTXU · KATEBI**

DEBEMENen ere aurkituko duzu (Merkatu Plazako 3. solairuan)